BIBLIOPORRAK

FILMAK LIBURUAK

2025
UDA

GIDA HAU OSATU DUTEN LIBURUTEGIAK

ANTZUOLAKO UDAL LIBURUTEGIA
ARAMAIOKO UDAL LIBURUTEGIA
ARETXABALETAKO UDAL LIBURUTEGIA
ARRASATEKO UDAL BIBLIOTEKA
BERGARAKO UDAL LIBURUTEGIA
ELGETAKO UDAL LIBURUTEGIA
ESKORIATZAKO UDAL BIBLIOTEKA
LEGAZPIKO UDAL LIBURUTEGIA
OÑATIKO UDAL LIBURUTEGIA

LG D 476-2024
Irudia: Helena Azkarragaurizar Jauregi

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

LIBURUAK

0 + URTE

GURPILTXORIK GABE IBILI NAHI DUT!

Tobias Giacomazzi.....PAMIELA KALANDRAKA

Unai zapaburutxoak bizikletan ibiltzen ikasi du. Berak, ordea, gurpiltxorik gabe ibili nahi du eta hori egiten tematuko da. Hala ere, batzuetan, borondatea ez da nahikoa eta besteen laguntza behar dugu nahi dugun hori lortzeko. Umorez kontatutako istorio polita. Handi egitearen ezinbesteko ondorioak.

IZOTZ AZPIAN

Michaël Escoffier, Ella Charbon.....TTARTTALO

Izotz gainean, arrantzale txiki bat eta bere lagunak kainaberako haritik tiraka. Izotz azpian, arrain txiki bat eta haren lagunak tiraka ere bai. Istorioaren anbiguotasunak irakurlearengan zalantzak sortuko ditu: nor da Nouka? Nork irabaziko du? Laguntasuna eta autonomiari buruz gogoeta egiteko album ederra.

KAIXO, PIZTIOK :)

Amandine Piu.....TTARTTALO

Animaliak eta gizakiak hain ezberdinak ez garela erakusten duen liburu umoretsua. Esaldi poetiko eta irudi finak erabiliz, Amandine Piuk bizidunenganako errespetua helaraziko die etxeko txikiei. Animalien ispiluaren aurrean jartzeko aukera bikaina!

AFUERA: OTO, LOLA, PACO

Claudia Rueda.....OCÉANO TRAVESÍA

Afuera se compone de tres libritos que cuentan las peripecias de los topitos Oto, Lola y Paco, quienes con gran afán aventurero, saldrán de su casa bajo tierra para ver qué hay afuera. Escritas e ilustradas con gran sencillez, estas historias nos recordarán que no hay un lugar como el hogar.

NÚMEROS

Cibrán Rico, Suso Vázquez, etc.....FABULATORIO

Números es una propuesta interactiva con un diseño espectacular en forma de acordeón. A través del tacto y la vista podremos contar del 1 al 10 en nueve idiomas diferentes y si le damos la vuelta, contaremos también las estrellas. Un maravilloso libro convertido en obra de arte para las manos más pequeñas.

EL PUEBLO

Ximo Abadía..... ZAHORÍ BOOKS

En el pueblo el tiempo transcurre a un ritmo diferente. Convives con los animales, juegas, conoces a todo el mundo, te bañas y disfrutas de la naturaleza. Un libro bellamente ilustrado que nos habla de la experiencia inolvidable de ir al pueblo en todas las estaciones del año.

5 + URTE

MUNDU ZOROA

ATAK.....TXALAPARTA

Alderantzizko mundu zoro eta kaotikoan murgilduko gara kolore bizi eta trazo indartsuz eginiko ilustrazio hauen bitartez. Ikusi al dituzu inoiz pinguinoak zuhaitzetan? Eta trenak hodei artean hegan? Bada, Atak gai da aldrebeskeria zoroena imajinatzeko, baita horiek guztiak paper gainean trebeki marrazteko ere.

SAGUAREN OPORRAK KOSTALDEAN

Alice Melvin .....IBAIZABAL

Album ilustratu honetan, Saguak itsasertzean egunez egun bisitatu eta gozatzen dituen txoko eta altxorren berri izango dugu, testu arin eta erritmikoa lagun. Liburua osatzeko, kostaldeko hainbat ezaugarriri buruzko informazio pilulak bildu ditu egileak. Itsasertza familian ezagutzeko abentura polita!

LANBIDELETRAK

Antton Kazabon, Jokin Mitxelena.....DENONARTEAN

Lanbideak aspergarriak eta monotonoak izan ohi dira, usteak erdia ustel, ordea. Antton Kazabonek, Jokin Mitxelenaren marrazki koloretsu eta adierazkorrek apainduta eta alfabetoaren letra ezberdinak baliatuz, liburu dibertigarria taxutzea lortu du, hizkuntzarekin eta irudimenarekin trebeki jolastuz.

LA HISTORIA DE MO

Yeonju Choi .....LIBROS DEL ZORRO ROJO

Una noche que Mo no puede dormir, ve por la ventana una luz que, antes de desaparecer, parece que le sonríe. A pesar del miedo y del temible oso del bosque, decide ir a buscarla. Acompaña a Mo en esta aventura llena de encuentros y sorpresas.

ABUELA, NIETO Y BURRO

Caxoto, Cinta Arribas.....TRIQUETA

Este singular trío disfruta de un paseo tranquilamente, hasta que el encuentro con diversos desconocidos altera su armonía. Un cuento de tradición oral que rebosa ritmo y color, y que nos recuerda la importancia de vivir y dejar vivir.

LA TIERRA NO ES PLANA

Andrea Antinori.....ZAHORÍ BOOKS

Si la tierra fuera plana, pasarían cosas realmente extrañas. Adéntrate en este libro informativo y descubre de forma divertida, amena y científica que solo existe una posibilidad: la tierra es redonda y no hay ninguna duda al respecto. Todas las demás teorías son mucho más adecuadas para otro tipo de libros que también encontrarás en esta guía: concretamente, los de ficción.

8 + URTE

AZTI IKASLEA

Barbara Hazen, Tomi Ungerer.....DIMONI PELUT

60ko hamarkadaren amaieran idatzitako ipuin dibertigarri honek magia eta fantasiaz beteriko mundu batera garamatza, Tomi Ungerer ahaztezinaren ilustrazio zoragarriek lagunduta. Gaztelu zahar batean bizi den azti jakintsuak bidaian joan beharra dauka, eta bere ikasle nagi eta sinpatikoa utziko du gazteluaren kargura. Gai izango ote da Humboldt ikasle gaztea gaztelua ondo zaintzeko?

HIRURETATIK LAURETARA

Miren Agur Meabe, Laura Benavente .....GILTZA

Iria bere amonaren etxera joaten denean lotara, Virgilia Eneara, gaueko hiruretatik lauretara gauza bitxiak gertatzen dira. Oraingo honetan idazleak gaztetxoendako eleberri zirraragarri batekin gozaraziko gaitu, non intriga, susmoak eta familia sekretuak izango baitira kontakizun honen elementu nagusiak.

JULEN ETA HELENE

Jabier Muguruza, Jokin Mitxelena.....DENONARTEAN

Parez pare bizi dira Julen eta Helene. Julen beti dago etxean, leihotik begira, gitarra jotzen. Helene berriz, alai, eskolara doa goizero. Ez dira ezagutzen, baina elkar ikusten dute egunero. Bi ikuspuntutik kontatutako istorio goxoa, xumea. Bi protagonista, bi bizipen ezberdin, bi mundu elkarri lotuta leihoaren bestaldean.

¡JOPÉ!

Anke Kuhl.....GALIMATAZO

Con mucho humor y ternura, Anke Kuhl refleja en este cómic autobiográfico las escenas más cotidianas que viven dos hermanas en la niñez, desde las más divertidas hasta las más complejas, pero todas ellas llenas de vida. Es muy posible que en alguna de ellas te identifiques. Un homenaje a la infancia de ayer y hoy.

CALLE DE LA OCA

Ana Garralón, María Pascual de la Torre .....EKARÉ

¿Has pensado alguna vez en todos los secretos e historias que esconden los espacios que recorres todos los días? Este precioso libro de información nos enseña que la curiosidad por los detalles cotidianos puede cambiar nuestro punto de vista, y descubrirnos, a su vez, nuevos mundos en lugares muy cercanos.

EL GRAN IVÁN

Marjorie W. Sharmat, Marc Simont.....BLACKIE BOOKS

Vestido con sombrero y gabardina de detective profesional, el Gran Iván está listo para resolver cualquier misterio. Esta mañana, después de un gran desayuno con tortitas, recibe la llamada de su amiga Anita: ¡ha desaparecido su dibujo! Iván no duda en utilizar sus dotes detectivescas para ayudarle y solucionar el misterio.

GAZTEAK

ZOZABARRAK

Maixa Zugasti.....EREIN

Zozabarrak iritsiko diren garai beretsuan June gelaz aldatuko dute eskolan. Irain, bultzada eta txutxumutxuek bere egunerokotasuna hartuko dute; larrimina sortzeraino izua sentituko du. Baina, betirako egongo dira zozabarrak inguruan dantzan? Irtenbiderik egongo ote da?

EURITAN

Idoia Rodriguez Mondragon.....ELKAR

Egutegi moduan egituratuta dagoen eleberri honek Euri neskatoaren azalean jarriko gaitu. Iparraldetik datorkigun hizkuntza arin eta irakurterrazean, misterioa, lehen sexu harremanak eta nerabezaroan hain ohikoak diren familiarteko gatazkak ezagutuko ditugu, hari musikala eleberriari izena ematen dion Zaramaren abesti ezaguna delarik.

ANASTASINI ZIRKUA

Miren Amuriza, Malen Amenabar.....DENONARTEAN

Memoria ariketa honetan, Anastasini zirkuaren istorioa kontatzen da, 1936ko uztailean Lodosara iritsi zena. Egileek, ilustrazio indartsuen eta mimoz jositako haur baten hitzen bidez, altxamendu militarrak bete-betean harrapatu zituenen bizipenak kontatzen dizkigute. Esanguraz eta emozioz betetako album ilustratua.

VALENTINA Y EL AMOR VERDADERO

Gene Luen Yang, LeUyen Pham.....ASTIBERRI

Valentina, romántica empedernida, celebra todos los años la fiesta de San Valentín con gran ilusión. Sin embargo, el día de su 14 cumpleaños, todo lo que creía sobre el amor se desmorona al descubrir un secreto que su padre llevaba años ocultándole. ¿Cómo podrá seguir creyendo en el amor verdadero después de esa mentira?

eLiburutegian ere eskuragarri
Disponible también en eLiburutegia

LA CACERÍA
David Lozano.....EDEBÉ

Seis jóvenes participan en la prueba experimental de un videojuego de realidad mixta, donde deberán enfrentarse a monstruosas criaturas virtuales creadas por la IA. Cuando la partida comienza, ya no hay vuelta atrás. Trepidante trama que te atrapará tanto como a los propios personajes.

LA MUY CATASTRÓFICA VISITA AL ZOO
Joël Dicker.....ALFAGUARA

La visita de la clase de Joséphine al zoo se ha convertido en una catástrofe y nadie sabe exactamente qué ha ocurrido. A medida que avanza la investigación para descubrirlo, comprendemos que una catástrofe nunca llega sola, que las apariencias engañan y que los eventos pueden tomar un giro inesperado. Novela llena de suspense, humor y reflexión para todas las edades.

HELDUAK

KONTRA
Ane Zubeldia Magriñá.....SUSA

Zer da kontra egitea? Nola gaude gauzen kontra? Kontra egotea ez da bakarrik aurrez aurre talka egitea, baizik eta ukitzea. Eta hori arakatu du egileak, nola egon kontra elkar ukitzen dugunean. Talkaren ordez, frikzioa. Zartaren ordez, igurtzia. "Kontra" kontzeptua hartuta, estreinako poema liburu aipagarria idatzi du Ane Zubeldia Magriñák.

PUNTOBOBO
Itxaso Martin Zapirain.....EREIN

Bi planotan eginiko kontakizuna duzue hau. Batean, ama eta alaba baten istorioa kontatzen da eta bestean, ama eta alaba baten arteko elkarrizketak. Bi garai eta gaixotasun mentalak tratatzeko bi modu desberdin agertuko zaizkigu, sekretuen eta ezkutaketaren munduan murgilduta bata, eta argitasuna zein konponbidea bilatu nahi duena bestea.

PLEIBAK
Miren Amuriza.....SUSA

Istorioak nerabezaroko harreman bat aurkezten du eta kapitulu laburretan abiadura bizi-bizian eramango zaitu. Nabarmena da idazleak hizkuntzarekin nola esperimentatzen duen, ahozkotasunetik oso gertu dagoen lengoaia propio bat sortzeraino.

DOLU-EGUNEROKOA
Roland Barthes.....KATAKRAK

Amaren heriotzaren ondoren, Barthesek egunero idatzi zituen bere sentimenduei buruzko ohar laburrak, bere kezkak eta pentsatzeko modua ere islatzen dituztenak. Horiek guztiek osatzen dute eguneroko hau. Doluaren inguruan argibidez jositako liburua. Irakurtzeko atsegina, batzuetan sofistikatua, baina beti delikatua.



DIESEL
Bertol Arrieta.....ALBERDANIA

Ipuin liburu hau zazpi kontakizunez osatuta dago eta protagonistak bizitzera ohitu diren 40 eta 50 urte bitarteko pertsonaiak dira. Konexio berezia duten istorio hauetan egileak inperfekzioaren edertasuna erakusten du, gai konplexuak oinarri eta umore surrealista erabiliz.

EZINEZKOAREN ALDE
Iñigo Martinez Peña.....ELKAR

Gaur egun ezinezkorik ez dagoela esaten digute, denak duela nolabaiteko konponbidea; teknologikoa, farmakologikoa, psikologikoa edo dena delakoa. Baina badira gure bizitzan hutsuneak diruz konpondu ezin direnak. Horietako batzuei erreparatuko die hemen egileak, atal motz eta ulergarrietan galdera filosofikoak planteatuz, bizitzarako gida modura.



EHUN ZALDI TROSTAN
Ainhoa Urien Telletxe.....ELKAR

Irene, kontakizun sorta honetako protagonista, hiriaren eta baserriaren artean bizi da, eta bizileku bakoitzak bere nortasunaren alde bat elikatzen du. Hortik abiatuta, elkarri lotutako pertsonaien gama ñabar bat zabaltzen da, ipuinetik nobelara doan narrazio bat osatuz. Hizkera zehatz eta aberatsarekin, Ignacio Aldecoa Beka irabazi du lan honek.

URTE URDIN IHESAK
Txiliku.....ELKAR

Iraganaren zaporeaz gozatzeko aukera eskaintzen digu Txilikuk bere idazkera goxo eta eraginkorrarekin. Hainbat kapitulutan zehar, eta ipuinaren egituraz baliaturik, sentsibilitate bereziarekin landutako pasadizoak eta burutazioak tartekatzen ditu. Gure iragan hurbilaren lekuko zuzenak diren testigantza jakintsuak.

SALTSA NOSTRA: SERGIO ORTIZ DE ZARATEREN ERREZETA-KOMIKIA.....TARISKO

Saltsa Nostra gastronomiak behar zuen Rock & Roll-a da. Errezeta komikia izaki, thriller eran indarkeria, umorea eta gastronomia ederki uztartzen dira bildumako lehen lan honetan. Gainera, munduko sukaldari onenek frankizien, korporazioen eta zabor janariaren kontra nola borrokatuko diren erakutsiko digute.
Komiki bizia bezain ahaztezina.

MAURIZIA: BIZIMINAREN HOTSA
Garbiñe Ubeda, Garluk.....JKASTOLEN ELKARTEA

Komiki honetan bildu dira 'Xabiroi' aldizkarian atalka agertu ziren Maurizia pandero-jotzaile eta abeslariaren bizitzako pasarte xumeak. Nortasun handiko emakume batekin egingo dugu topo eta, iragana eguneratuz, ulertuko dugu zergatik jarraitzen duen musikari-belaunaldi berriak liluratzen.

ESCLAVOS DEL ALGORITMO
Laura G. de Rivera.....DEBATE

La inteligencia artificial está por todos lados, pero ¿qué es?, ¿cómo se crea? y ¿para qué se utiliza? La autora nos da respuesta a estas y otras muchas preguntas y nos hace reflexionar sobre el uso de esta herramienta que moldea el conocimiento que tiene la sociedad sobre la realidad.

EL AÑO QUE NEVÓ EN VALENCIA
Rafael Chirbes, Paula Bonet.....ANAGRAMA

Chirbes evoca los sentimientos que le provoca una celebración familiar en una Valencia sorprendentemente cubierta de nieve. Breve relato ilustrado escrito desde la mirada de un niño, donde el escritor y la pintora comparten olores y memoria, tierra y mar. De una belleza arrebatadora.

MAURO
Mikel Guerendiain.....PEPITAS DE CALABAZA

En 1938 alrededor de ochocientos presos se fugaron del penal franquista de San Cristóbal, cerca de Pamplona. La primera novela de este autor navarro elige este tema deteniéndose en las complejidades de unos personajes imborrables. Una lectura honesta y eficaz que te arrastra hasta el desenlace final.

EL ÚLTIMO ARTEFACTO SOCIALISTA
Robert Perišić.....IMPEDIMENTA

Años después de la Guerra de los Balcanes, un par de empresarios buscavidas llegan a un pueblo perdido en las montañas para reabrir la fábrica de turbinas que lleva cerrada veinte años. Es una sátira del postsocialismo y la llegada del capitalismo a una sociedad marcada por la reciente guerra y un futuro incierto.

ANIMALES PEQUEÑOS
Mercedes Duque Espiau.....TUSQUETS

En esta su primera novela, Mercedes Duque retrata a tres chicas desencantadas que buscan su lugar en la vida. Rita viaja a Londres al finalizar su carrera universitaria junto a su amiga Lis, pretendiendo simular la vida cómoda y exitosa que lleva en la ciudad su hermana mayor, Eva. Pero lo que encuentra es desesperanza y soledad en una ciudad hostil.



VALLESORDO
Jonathan Arribas.....ASTEROIDE

Novela que pone de relieve lo importante que es sentir que te comprenden y vivir con ilusión. Narra las vivencias de un niño de 12 años en un pueblo de Zamora, donde el día a día transcurre bajo el trato áspero de las personas adultas y donde priman la amistad, el amor y las ganas de vivir.

RECORRE LOS CAMPOS AZULES
Claire Keegan.....ETERNA CADENCIA

Con una prosa lírica y reflexiva, Keegan desnuda en estos relatos la vida en la Irlanda rural contemporánea. Historias de abuso familiar e incesto, matrimonios sin salida, soledades a veces aliviadas por el alcohol, bullen debajo de la quietud del paisaje. Autora referencial de la literatura irlandesa. ¡Soberbia!

LA VOZ DEL ORÁCULO
Liv Strömquist.....RESERVOIR BOOKS

En los tiempos actuales de felicidad impostada, influencers de medio pelo, gurús mediáticos insustanciales y autoayuda banal, la escritora sueca nos ofrece un soplo de aire fresco con su inconfundible tono irónico y mordaz al explorar temas trascendentales desde el punto de vista de la filosofía y la sociología moderna.

BALADA DE LOS ESQUELETOS
Allen Ginsberg.....ANAGRAMA

Uno de los poemas menos conocidos de Allen Ginsberg, y también uno de los más actuales. Sus versos, tan radicales como divertidos, azote de la moral estadounidense, denuncian el sistema de agotamiento, explotación y destrucción en el que vivimos. ¡Te sorprenderán!

EL PESO DE LOS HÉROES
David Sala.....ASTIBERRI

Cómic que nos deleita con un relato autobiográfico de una belleza sobrecogedora. En homenaje a su abuelo y a su abuela, el autor e ilustrador nos habla sobre el legado familiar en nuestras vidas. Un álbum que evoca el dolor del éxodo, los horrores de la guerra y las dificultades para forjarse una vida, imprescindible para conocer la historia de nuestro país.

FILMAK

EL CONDE DE MONTECRISTO
Matthieu Delaporte, Alexandre de La Patellière.....ABENTURAK

Egokitzapen berri honek Dumasen obraren mamia atzematen du eta akzioa, drama eta abenturak batzen ditu mendeku istorio batean. Iraupen luzeko pelikula, argazkigintza eta jantzi bikainekin.

Traición, romance e intriga componen este peculiar juego de la venganza, con un ritmo trepidante y una cuidadísima producción.

JURADO Nº 2
Clint Eastwood.....THRILLER

Eskarmentu handiko zuzendari honek bere filmografiako pelikularik ilunena osatu du, hilketa kasu batean epaimahaikide gisa hautatua izan den gizon bati buruzkoa. Lan bikaina eta oso eszenaratze dotorea.

El veterano director entrega un thriller judicial donde aborda conceptos como la verdad, la moral, la culpa y el papel de la justicia y nos invita a tomar conciencia del valor de la responsabilidad personal y de los límites de nuestra libertad.

EL MONJE Y EL RIFLE
Pawo Choyning Dorji.....DRAMA

Fabula satiriko zorrotz honetan, Butaneko erresumara bidaiatzeko aukera izango dugu. Mendebaldeko ohituretatik urrun dauden bizilagunen izaera bitxia ezagutuko dugu, tradizioaren eta "modernitatearen" arteko talka izango delarik ardatz nagusia.

Incisiva fábula satírica que nos traslada al lejano reino de Bután, donde conoceremos la peculiar idiosincrasia de las personas lugareñas, alejada de los estándares occidentales. La película ahonda en el choque entre las costumbres tradicionales y los nuevos aires de cambio "modernos".

UNA ESTRELLA FUGAZ
Ignasi Guerrero, Arturo Méndiz.....DOKUMENTALA

Pep-ek lau hilabete besterik ez zituen hil zenean. Heriotza goiztiar hark familia osoaren zimenduak astindu zituen. Bere inguruan egon ziren guztiei behin betiko aldatu zien bizitzari eta heriotzari aurre egiteko modua.

Hay vidas breves y fugaces que cambian la vida de los que les rodean. Una lección de aceptación, valentía y amor. Emocionante.

CÓNCLAVE
Edward Berger.....DRAMA

Nola aukeratzen da Aita Santu berri bat? Zer azpijoko eta negoziazio daude konklabe batean? Film honek gehienontzat ezezaguna den prozesu honen erritualak eta protokoloak azaltzen dizkigu.

Con una magnífica puesta en escena y excelentes interpretaciones, este thriller refinado nos propone una reflexión sobre el papel de la Iglesia en la sociedad actual.

MARCO
Aitor Arregi, Jon Garaño.....DRAMA

Enric Marcok asmatutako bizitza bat eraiki zuen, nazien kontzentrazio esparru batean egon zela guztiei sinestaraziz. Egia azaleratu arte, sarraskiaren aurkako ikono bilakatu zen.

Un film dirigido por Aitor Arregi y Jon Garaño. Una historia real y sorprendente contada con elegancia y mucho tacto. Una vida construida en torno a una gran mentira.